TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| **<u>TOLOSAN, INAUTERIETAKO DIRULAGUNTZEN ETA ANTOLAMENDUREN ORDENANTZA BEREZIA.</u>** | **<u>ORDENANTZA ESPECÍFICA DE SUBVENCIONES Y DE ORGANIZACIÓN DEL CARNAVAL</u>** |
| 1. Helburua.<br>2. Dirulaguntza motak.<br>3. Onuradunak.<br>4. Prozedura.<br>5. Dirulaguntza emateko irizpideak.<br>6. Zuzkidura eta aurrekontuko partida.<br>7. Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak.<br>8. Ebazpena.<br>9. Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa.<br>10. Diru-laguntzen abonua eta aurrerakinak.<br>11. Publizitatea.<br>12. Araudia. | 1.Objetivo.<br>2.Tipos de subvenciones.<br>3. Personas o entidades beneficiarias.<br>4.Procedimiento.<br>5.Criterios para la concesión de la subvención.<br>6.Dotación y partida presupuestaria.<br>7.Obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.<br>8.Resolución.<br>9.Justificación del destino de la subvención.<br>10.Abono y anticipos de las subvenciones.<br>11.Publicidad.<br>12.Normativa. |
| <u>1. HELBURUA</u> | <u>1. OBJETIVO</u> |
| Dirulaguntza ordenantza berezi honen helburua Tolosako Iñauterietan karrozen eta konpartsen dirulaguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. | Es objeto de esta ordenanza especifica la regulación de la solicitud y concesión de subvenciones en concurrencia competitiva a la carrozas y comparsas de Carnaval. |
| Dirulaguntzak Iñauterietako karrozetan eta konpartsetan parte hartzeagatik eta haien beharrezko euskarriak garatzeagatik emango dira. | Las subvenciones tiene por objetivo la participación en las carrozas y comparsas de carnaval así como el desarrollo de los soportes necesarios. |

| | |
|---|---|
| <u>2.- DIRU LAGUNTZA MOTAK</u><br><br>Ordenantza honetan aipatzen diren dirulaguntzak hiru motatakoak izan ahalko dira:<br><br>A) Karrozak:<br>• Plataformaren gutxieneko neurriak: 2,5 m. zabal, 7 m. luze eta 1.m altuera. Gehienezko zabalera: 3,5 m.<br><br>• Derrigorrezko baldintzak: ibilgailu batean egina edo atoian eraman, emanaldia, soinu ekipoa, emanaldia, extintorea eta gutxienez 5 partaide.<br><br>B) Konpartsak:<br><br>• Plataformaren gutxieneko neurriak: 2 m. zabal eta 3 m. luze.<br>• Derrigorrezko baldintzak: emanaldia egitea.<br><br>C) Plataformarik gabeko konpartsak.<br><br>• Derrigorrezko baldintzak: emanaldia egitea.<br><br><u>3. ONURADUNAK</u><br><br>Dirulaguntza karroza edo konpartsetako ordezkariak izango diren norbanakoek eskatu ahal izango dituzte karroza edo konpartsaren | <u>2.- TIPOS DE SUBVENCIONES</u><br><br>Las modalidades de subvención de esta ordenanza son las siguientes:<br><br>A) Carrozas:<br>• Medidas mínimas de la plataforma: anchura, 2,5 m; longitud, 7 m; altura, 1 m. Anchura máxima: 3,5 m.<br><br>- Requisitos imprescindibles: construida sobre vehículo o remolcada, equipo de música, actuación, extintor y 5 participantes como mínimo.<br><br>B) Comparsas:<br><br>• Medidas mínimas de la plataforma: anchura, 2 m; longitud, 3 m.<br>• Requisitos imprescindibles: actuación.<br><br>C) Comparsas sin plataforma:<br><br>- Requisitos imprescindibles: actuación.<br><br><u>3. PERSONAS BENEFICIARIAS</u><br><br>Podrán solicitar las citadas subvenciones los y las representantes de las carrozas y comparsas de manera individual. |

| | |
|---|---|
| izenean. | |
| <u>4. PROZEDURA</u> | <u>4. PROCEDIMIENTO</u> |
| Eskera egiteko bi fitxa egongo dira, eskatzaile motaren araberakoak: | Habrá dos formularios de inscripción, en función del tipo de solicitante: |
| 1. <u>Karrozen formularioa</u> (I. Eranskina): derrigor aipatu beharko dira ordezkariaren datuak, kide guztien zerrenda, lehiaketan parte hartu nahi duten eta dirulaguntzaren aurrerapena egitea nahi ote den. | 1. <u>Formulario Carrozas</u> (Anexo I): es imprescindible indicar los datos de la persona representante, la lista de todos los miembros, y si se quiere tomar parte en el concurso y anticipo de la subvención. |
| 2. <u>Konpartsaren formularioa</u> (II. Eranskina): derrigor aipatu beharko dira ordezkariaren datuak eta lehiaketan parte hartu nahi ote duten. | 2. <u>Formulario Carrozas</u> (Anexo II): es imprescindible indicar los datos de la persona representante y si se quiere tomar parte en el concurso. |
| Izena emandakoan, zenbaki bat jasoko du parte hartzaileak. Zenbaki hori, emanaldian, bistan jarri beharko du. | La persona participante recibirá un número al inscribirse. En la actuación dicho número deberá estar visible. |
| <u>5. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK</u> | <u>5. CRITERIOS DE OTORGAMIENTO DE LA SUBVENCIÓN</u> |
| Dirulaguntzen banaketa irizpide hauen arabera egingo da: | El reparto de las subvenciones se hará según los siguientes criterios: |
| **A) EKARPEN FINKOAK** | **APORTACIONES FIJAS** |
| Ekarpen finkoan dira karrozen eta konpartsen antolakuntza soilagatik emango diren diru kopuru finko batzuk. Jakina da plataforma | Las aportaciones fijas son aquellas que se otorgarán de manera prefijada para la propia organización de carrozas y comparsas. Es sabido que cualquier plataforma, cualquiera |

| | |
|---|---|
| batek, edozein dela haren tamaina, azpiegitura gastuak dituela. Gastu finko horiek tamainaren, irteera egunen eta bestelako irizpideen araberakoa izango da eta urtero dagokion deialdian zehaztuko dira kopuruak.<br><br>**KARROZAK**<br>○ **Irteera egun kopuruak**:<br>• Bi egun: gutxienez bi egunez ateratzen diren karrozak.<br>• Egun bakarra: egun soil batean ateratzen diren karrozak<br><br>**KONPARTSAK**<br>○ **Konpartsaren tamaina:**<br>Konpartsen ekarpen finkoa haien tamainaren araberakoa izango da ondoren adierazten den kategorietan banatua:<br>• >5 m.<br>• 3,5 - 5 m.<br>• <3,5 m.<br>Tamainaz gain, konpartsentzako kopuru finkoak ezarriko dira ondorengo irizpideen arabera:<br>○ **Partaide kopurua**: | que sea su tamaño, tiene gastos de infraestructura. Los gastos fijos se establecerán en función del tamaño y del número de días en los que se participe. La cuantía de esta aportación se concretará en la convocatoria anual correspondiente.<br><br>**CARROZAS**<br>○ **Número de días de salida**:<br>• Dos días: carrozas que participan dos días como mínimo.<br>• Un día: carrozas que participan un único día.<br><br>**COMPARSAS**<br>○ **Tamaño de la comparsa:**<br>La aportación fija de las carroza será en función de su tamaño y se organizará en las siguientes categorías:<br>• >5 m:<br>• 3,5 - 5 m:<br>• <3,5 m:<br>Además del tamaño, también se establecerán cantidades fijas en función de los siguientes criterios:<br>○ **Número de personas participantes**: |

| | |
|---|---|
| ◦ **Zuzeneko musika**:<br>◦ **Antzezpena**:<br>◦ **Koreografia**: | ◦ **Música en directo**:<br>◦ **Actuación**:<br>◦ **Coreografia**: |
| **B) EKARPEN ERLATIBOAK**<br>Ekarpen erlatiboak ekarpen finkoen gainean egingo da eta Karrozek zein Konpartsek jaso ahal izango dute.<br>• Gizon-emakume parekidetasuna<br>◦ Partaideen erdia edo gehiago emakumezkoak badira, %10 gehiago.<br>• Euskararen erabilpena<br>◦ Emanaldia euskara hutsean, %10<br>◦ Emanaldia elebitan, %5. | **B) APORTACIONES RELATIVAS**<br>Las aportaciones relativas se harán sobre las fijas y podrán ser recibidas tanto por Carrozas como por Comparsas.<br>• Igualdad entre hombres y mujeres<br>◦ Si al menos la mitad de los participantes son mujeres, un 10 % más.<br>• Uso del euskera<br>◦ Actuación íntegramente en euskera, 10 %<br>◦ Actuación bilingüe, 5 %. |
| Irizpide hauek kontuan harturik, jaso beharreko diru kopuruak, dirulaguntza honetarako onartuta dagoen kopurua gaindituko balu, dirulaguntza guztien murrizpen proportzionala egingo da. | En caso de que, teniendo en cuenta estos criterios, el importe a recibir supere la cantidad aprobada para esta subvención, se llevará a cabo una reducción proporcional de todas las subvenciones. |
| 6. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA | 6. DOTACIÓN Y PARTIDA PRESUPUESTARIA |
| Diru-laguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko | La dotación y las partidas presupuestarias de las subvenciones se establecerán en las convocatorias anuales del Departamento de |

| | |
|---|---|
| dira.<br><br>7. ONURADUNEN BETEBEHARRAK<br><br>Karroza eta konpartsa onuradunen betebeharrak, deialdian jasotakoez gain, hauek dira:<br>• Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Tolosako Udalarenak egunean dituela egiaztatzea. Dena den, erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, udalari datu hauek kontsultatzeko baimen klausula bete ahal izango dute, diru-laguntza eskaerarekin batera erregistroan entregatuta.<br><br>• **Berdintasun** irizpideak errespetatzea: ez dira onartuko jarrera diskriminatzaileak erakusten duten karroza eta konpartsarik, batez ere emakumeenganako edota bestelako identitate sexualenganako pentsamolde diskriminatzaileak sustatzen dituztenak (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak).<br>• Jende aurreko **alkohol kontsumo ohiturak eredugarriak** izan behar dute. Zentzu horretan, galarazita dago edari alkoholikoak agerian eramatea eta sustatzea. Alkohola modu arduratsuan | Cultura, Fiestas y Juventud.<br><br>7. OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS<br>Son obligaciones de la persona o entidad beneficiaria, aparte de las señaladas en las bases específicas, las siguientes:<br><br>• Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en las obligaciones tributarias, en las de la Seguridad Social y en las del Ayuntamiento de Tolosa. La presentación del documento de cláusula de autorización al Ayuntamiento de Tolosa para autorizar la consulta , entregada en el registro junto con la solicitud de subvención sustituirá a la presentación de las certificaciones de los correspondientes organismos<br><br>• Respeto de los criterios de **Igualdad**: No se valorarán las carrozas o comparsas que reflejen actitudes discriminatorias especialmente hacia las mujeres o hacia otras identidades sexuales (lesbianas, homosexuales, transexuales, intersexuales).<br>• Deben tener **hábitos de consumo de alcohol ejemplares**. En ese sentido, no |

kontsumitzea helduek, aldean behin, neurriz eta kontuz egitekoa da.

- **Konpartsak** egiteko **ez dira ibilgailuak erabiliko**.
- Konpartsek ezin izango dituzte **haimak, karpa txikiak** edo antzekoak instalatu.
- Konpartsa edo karrozatan **ez da publizitaterik egingo**.
- 
- Ibilbidea:
  - **Karroza eta konpartsa handientzat eta izena ematen duten konpartsa txikientzat ibilbide bat** dago, eta bertan **geldirik** egongo dira. Ibilbide horretan toki finko bat nahi duten konpartsa txikiek eskatu egin behar dute.
  - Ibilbideko kokapenak zozketa bidez esleituko dira eta maila berean partea hartuko dute karrozek zein konpartsek.
  - Ibilbidean esleitutako lekuak ezingo dira aldatu antolakuntzaren berariazko baimenarekin ez bada.

- **Txarangak** uneoro errespetatu behar dira, batik bat kalejira garaian, bai zezen plazarako bidean, baita

se deben llevar bebidas alcohólicas a la vista. La persona adulta consume alcohol de forma responsable si lo hace ocasionalmente, con moderación y precaución.

- **No se utilizarán turismos** para construir **comparsas**.
- En las comparsas no se podrán instalar **jaimas** o **pequeñas carpas**.
- **No se realizará publicidad** en las carrozas y comparsas.
- Recorrido:
  - Hay un **recorrido para carrozas y comparsas grandes y comparsas pequeñas que se inscriban**, en el que deberán permanecer **inmóviles**. Las comparsas que quieran situarse en el circuito tendrán que solicitarlo expresamente.
  - Las ubicaciones en el recorrido se adjudicarán mediante sorteo, y tanto carrozas como comparsas participarán por igual en el mismo.
  - Las ubicaciones adjudicadas en el recorrido no se podrán cambiar salvo autorización expresa de la organización.
- Se debe respetar en todo momento a las **charangas**, y especialmente el

| | |
|---|---|
| bueltakoan ere. **Kalejiraren ibilbidea libre** egon behar du. Ibilbidean eta alboetan dauden karroza konpartsen **musika ekipoak itzalita egongo dira tarte horretan.** | pasacalles, tanto a la subida como a la bajada. **El recorrido del pasacalles** deberá estar **despejado. Los equipos de sonido** de las carrozas y comparsas que estén en el recorrido y junto al mismo **deberán permanecer apagados.** |
| • **Ordutegia:** karroza eta konpartsen emanaldi guztiek goizaldeko **23:00etan amaitu** behar dute, eta ezin dute goizeko 11:00ak baino lehenago hasi. **Emanaldirik ez dagoen bitartean**, **musika bolumenaren erdira jaitsi** egin beharko da. | • **Horario:** Todas las actuaciones de carrozas y comparsas deberán **finalizar a las 23:00 horas,** y no podrán empezar antes de las 11:00 de la mañana. **Cuando no haya actuación, los equipos de música deberán bajarse a la mitad del volumen permitido.**. |
| • **Soinuaren bolumena**: **Egunez**, Karroza eta konpartsetatik 10 metrora egingo diren soinu neurketek ezingo dituzte 8**0 dB**ak gainditu. **22:00etatik aurrera**, soinuaren bolumenaren muga 5**5 dB**koa izango da. | • **Volumen de la música**: **Durante el día**, las mediciones de ruido que se hagan a 10 m de las carrozas y comparsas no podrán superar los 8**0 dB**. **A partir de las 22:00**, el límite del volumen de la música será de 5**5 dB**. |
| • **Zarataren kontrolerako eremu berezia:** eremu bat ezarriko da eta bertan zuzeneko musika egiten duten konpartsak eta musikarik gabe antzezpenak egiten dizutenak baino ez dira onartuko. Eremu honetan kokatu ahal izango diren konpartsa hauek identifikazio zenbaki koloredun berezia izango dute. Gainerako konpartsa ibiltari guztiek ezingo dute bertan geldirik luzaro egon eta igarobidean musika aparatuak itzalita izan beharko | • **Zona especial de control de ruido:** se establecerá un área especial de control del ruido donde sólo se admitirán las comparsas que hagan música en directo o actuaciones sin música. Las comparsas que se ubiquen en dicha zona tendrán un número identificativo de color especial. Las demás comparsas ambulantes no podrán permanecer quietas durante mucho |

| | |
|---|---|
| dituzte | tiempo y deberán apagar sus equipos de música en el tránsito. |
| Betebehar horiek betetzen ez dituzte karroza eta konpartsek dirulaguntzarik gabe geratu ahal izango dira. Bereziki kontuan hartuko dira arau-hauste hauek: | Las carrozas y comparsas que no cumpla con los estipulado en este apartado podrán ser excluidas de las subvenciones. Tendrán especial consideración las siguientes infracciones: |
| • **Disko konpartsek**, hau da, musika anplifikatua jartzeaz gain beste jarduerarik egiten ez duten konpartsek, **ez dute dirulaguntzarik jasoko**. | • **Disco comparsas**, es decir, las que no tienen otra actividad más que poner música amplificada **no serán subvencionadas.** |
| • **Gehiegizko zarata** maila dutenak eta zarataren kontrolerako **eremu berezia** errespetatzen ez duten konpartsei **%100a kenduko** zaie esleitutako dirulaguntzatik. | • A las comparsas que **superen el nivel de ruido** permitido y a las que no cumplan con la zona especial se les **retirará el 100 % de la subvención.** |
| • **Ibilbideko kokapena** errespetatzen ez duten konpartsek, antolakuntzaren berariazko baimenik izan ezean, dirulaguntzaren **%50a** kenduko zaie egun batez gertatzen bada, eta **%100a** bi edo egun gehiagotan gertatzen bada. | • **Las comparsas y carrozas que no respeten su ubicación en el recorrido, s**alvo autorización expresa de la organización, **se les retirará el 50% de la subvención** si esto durante un días, y el 100% si ocurriera durante dos o más días. |
| <u>8. EBAZPENA</u> | <u>8. RESOLUCIÓN</u> |
| Ebazpena Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da. | La resolución se realizará conforme se establece en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Tolosa. |
| - Antolamendua eta instrukzioa ( Instrukzio-organoa): Kultura, festak eta Gazteria Saileko | – Organización e instrucción ( órgano de instrucción): jefe del Departamento de Cultura, |

| | |
|---|---|
| arduraduna.<br>- Azterketa: Kultura teknikaria.<br>- Ebazpena ( organo eskuduna): Kultura zinegotzi delegatuari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz. | Fiestas y Juventud.<br>– Análisis y valoración: Técnico de cultura.<br>– Resolución (órgano competente): corresponderá a la Concejala delegada de cultura o a la Junta de Gobierno Local, conforme a las competencias y eventuales delegaciones vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento. |
| **Jakinarazpen epea**<br>Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea Tolosako Udaleko ordenantza orokorrean ezarritakoa izango da. | **Plazo de notificación**<br>El plazo de notificación de la resolución de las subvenciones será el establecido en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Tolosa. |
| 9. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA | 9. JUSTIFICACIÓN DEL DESTINO DE LA SUBVENCIÓN |
| Dirulaguntza jaso ahal izateko, Iñauteriaren ondoren, derrigor aurkeztu behar dira:<br>• Karroza edo konpartsaren datuak (III. Eranskina).<br>• Karroza edo konpartsaren argazki bat eta bideo bat. Argazkian parte hartzaile guztiak eta plataforma garbi ikusi beharko dira. | Para el cobro de la subvención, después de los Carnavales se deberá aportarlo siguiente:<br>• Datos de la carroza o comparsa (Anexo III).<br>• Una fotografía de la carroza o comparsa y un vídeo. En la fotografía deben aparecer claramente todas las personas participantes y la plataforma. |
| a) Argazkia, bideoa eta datuak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.<br>b) Dirulaguntza hauen banaketa norgehiagoka bidez egingo da.<br>c) Iñauterien ondoren, karrozek eta konpartsek aurkeztutako datuak, argazkia eta bideoa | a) Los plazos para la presentación de las fotografías y los vídeos se establecerán en la convocatoria.<br>b) Es subvención será de carácter concurrente.<br>c) Tras los Carnavales, el Ayuntamiento decidirá qué grupos recibirán subvención, así |

| | |
|---|---|
| ikusita, Udalak erabakiko du zein taldek izango duen dirulaguntza eta zenbatekoa. | como el importe de la misma, a la vista de los datos, fotografía y vídeo presentados por las comparsas. |
| d) Bideorik bidaltzen ez duen karroza edo konpartsari ez zaizkio baloratuko zuzeneko musika, antzezpena, koreografia eta euskararen erabilpen atalak. | d) A las carrozas y comparsa que no hayan enviado vídeo no se les puntuará los apartados de música en directo, actuación, coreografía y uso del euskera. |
| e) Euskararen erabilpena baloragarria izango da soilik antzezpena dagoenean. | e) El uso del euskera será tenido en cuenta solo cuando haya actuación. |
| <u>10. DIRU LAGUNTZEN ABONUA ETA AURRERAKINAK</u> | <u>10. ABONO Y ANTICIPOS DE LAS SUBVENCIONES</u> |
| Diru laguntzen abonua Tolosako udaleko ordenantza arautzailean ezarritakoari jarraiki egingo da. | El abono de las subvenciones se hará de acuerdo con lo establecido en la Ordenanza Reguladora del Ayuntamiento de Tolosa. |
| Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira soilik berariaz horrela eskatu duten karrozek. Karrozek dirulaguntzaren deialdian xedatukoren ekarpen finkoaren %50a jaso ahal izango dute parte-hartzea prestatzeko. Aurrerakin horrek behin behineko izaera izango du eta baldintzatua egongo da bai dirulaguntzaren kitapen ebazpenagatik bai aipatutako balizko murrizketa proportzionalarengatik. | Se podrán realizar pagos anticipados únicamente a las carrozas que los indiquen expresamente. Las carrozas podrán solicitar un anticipo del 50% de las aportaciones fijas establecidas en la convocatoria para la elaboración de las mismas. Este anticipo tiene carácter provisional y estará condicionado tanto a la liquidación de la propia subvención como la posible reducción proporcional de las mismas. |
| <u>11. PUBLIZITATEA</u> | <u>11. PUBLICIDAD</u> |
| Emandako dirulaguntzen zerrenda, pertsona onuradunak eta beren zenbatekoak adierazita, | La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus |

| | |
|---|---|
| Udalaren web orrian,udaleko iragarki-oholean argitaratuko dira eta BDNS-n.<br><br><u>12. ARAUDIA</u><br><br>Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); 4/ 2005 legea, otsailaren 18an emakumeen eta gizonen berdintasuneko eta Tolosako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek Dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea. | cuantías, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento, en el tablón de anuncios municipal y en BDNS.<br><br><u>12. LEGISLACIÓN</u><br><br>En todo lo no previsto en las presentes bases específicas se aplicará lo siguiente: la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (BOE 25 de julio); la ley 4/2005, de 18 de febrero, sobre la igualdad entre mujeres y hombres, y la Ordenanza General de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Autónomos |